
munduak guztiontzat beharko luke
AFESTA
Ane Pirata eta Oier lagunak dira. Eskolan elkarren ondoan esertzen dira. Oierrek Tourette sindromea dauka, eta tarteka salto egiten du aulkian.
ZER PASATZEN ZAIZU, OIER? OSO KOPETILUN ZAUDE GAUR...
NIRE TIKEI EUSTEN ARI NAIZ, ATZO MUTIKO BATZUEK BARRE EGIN ZIDATEN KALEAN...
NIK EZIN DITUT KONTROLATU NIRE SALTOAK. ETA ARKATZAREKIN MAHAI GAINEAN HIRU ALDIZ JO BEHARRA DAUKAT, ETA EZ DAKIT ZERGATIK.
TOK! TOK! TOK!
TIRA, ETA NIK MUKIAK ARRANTZATZEN DITUT HATZEKIN. ETA ZER?
TOK! TOK! TOK!


SALTO EGITEN DUZUNEAN, BARRUAN DARAMAZUN IPOTXAK IRRIBARRE EGITEN DIT, ETA ARKATZAREKIN EGITEN DITUZUN HIRU KOLPETXO HORIEK ENTZUTEAN, POZTU EGITEN NAIZ, NIRE ONDOAN ZAUDELA GOGORATZEN NAIZELAKO.
TOK! TOK! TOK!
TOK! TOK! TOK!


EZ HASERRETU JENDEAREKIN. GAUZA EZEZAGUNEK, NORMALEAN, BELDURRA EMATEN DIGUTE. ETA BELDURRAK, ASKOTAN, BARREGURA TUNTUNA.
AGIAN ARRAZOIA IZANGO DUZU...


PATAKON! NIRE BILA ETORRI ZARA! IKUSI, OIER, HAU PATAKON DA.
EZUSTEA EMAN NAHI NIZUN, POLITA! JOANGO AL GARA JOLASTERA?


OIER, ETORRI NAHI AL DUZU GUREKIN?
TIRA, BUENO, EZ DAKIT....
NIRE HANKAPALOARI BEGIRA BAZAUDE, EZ DITUZU NIRE BEGIAK IKUSIKO, MUTIKO!







TOURETTE Euskadi

Affesta Euskadiko Tourette Sindromearen eta bestelako osasun-arazoen familia elkartea da.



Tourette Sindromea tikak egiteko bereizgarritasuna duen osasun-arazo neurologikoa da. Tikak motoreak edo fonikoak izan daitezke. Horiekin batera, beste osasun-arazo batzuk ere azaltzen dira gehienetan (tdah, nahasmen obsesivo konpultsiboa, jokabide arazoak, etab.).



Ez da endekapenezko gaixotasuna eta ez dio adimenari eragiten. Pertsona gutxiri eragiten die, eta gaixotasun ezohikoen barruan sartzen da. Afesttaren helburua gaixotasun ezezagun hau ezagutzera ematea da.

**www.touretteeuskadi.blogspot.com.es**
**Emeterio Arrese kalea 2, Tolosa**
**Tel: 667781866**